

## Udaleko sototik


## Auditz Akular, zorioneko auzoa

Juan Carlos Lopez

**G**arrantzi handiko hirigintza ekimena datorkigu. Auzo berri bat egin behar dute, hiria ekialdetik zabalduko duena eta etxebizitza bila sustapen batetik bestera dabiltzan donostiarren arreta bereganatuko duena.

Horra hor datuak: Auditz Akularren 3.000 etxebizitza berri egingo dira eta %75 babes ofizialekoa izango da. Beraz, prezioa ez da buruhaustea izango, ezta gutxi batzuen aberasgarri ere. Baina horrez gain, ekimenari esker, Pasai Antxo, Landarro eta Altzara joateko errepide berria egin ahal izango da. Kontuan hartu behar da azken auzo honetan ikaragarritzko hirigintza lan itsusia egin zela, logika baino grua kopurua garrantzitsuagoa zen garai hartan.

Proiektuaren beste ezaugarri nagusietako bat 30 hektareako parkea izango da. Hori ezezik, beste parke bat ere egin behar dute, txikia, Miravalles baserri ondoan, eta



3.000 etxebizitza eraikiko dira Auditz Akularren.

Argazkia: Manolo Oleg

Molinaoko ibarra ere asfaltoaren eraginek kanpo geratuko da.

Auditz Akular zorioneko jaio da. Espero dezagun inork ekimenaren

aurka ez egitea. Izan ere, hiri hau nekez zabal baitaiteke. Eta batez ere, inork ez dezala amets honen hasiera luzatu.

## ● SOTOTIK TXULORA

## ■ Victoria Eugeniako lanak, gertuago

Sustapen Ministerioaren zerbitzu teknikoek argi berdea eman diete Victoria Eugenia antzokiaren berritze lanei. Beraz, Ministro Kontseiluaren baiezkua besterik ez da falta. Berrikuntzak 1.400 milioi pezetako aurrekontua du eta Udalak eta Espainiako Gobernuak erdibana ordainduko dute.

## ■ Zabalaga baserria

Iraila Txillidaren hilabetea izango da. Eskultore donostiar ezagunak Zabalaga baserria irekiko du, Zinemaldia hasi baino lehen. Bertan bere lanak bilduko dira. Sona handiko artistak izango dira inaugurazioan, mundu osotik etorriak, eta udako gertaerarik garrantzitsuena izango da.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza  
obra social*